

Sagardo-Egunak Gipuzkoar Ostalariak omendu ditu



Aurrekotan bezala, aurten ere Gipuzkoako Sagardo Naturaleko Elkarteak Sagardo-Eguna antolatu zuen, Kultura eta Turismo Ekintzetxearen eta Kutxaren laguntzarekin, irailaren 1ean, larunbata, Euskal Jaien ospakizunetan.

Goizeko 11:00etan hasi eta eguerdiko 14:00ak bitartean, Donostiako Alde Zaharreko Konstituzio Plazan ia berrogeita hamar sagardotegik 10.000 litro sagardo dastatzeko eman zien bertara hurbildu zirenei. Ez dezagun ahaztu Sagardo-Egunaren azken helburua botila-sagardoaren kontsumoa promozionatzea dela.

13:00etan festan etena egin zen urteroko omenaldiari hasiera emateko. Aurten Gipuzkoako Ostalaritza Enpresarioen Elkarteak izan zen omendua, eta bere izenean Mikel Ubarrechena Pisón Presidenteak izan zen bertan. Honela, Elkarteari botila-sagardoaren promozioan egindako lana eskertu nahi izan zitzaion.

Ostalaritza Enpresarien Elkarteak produktu bikain honen promozioan laguntzen jarraituko du, sagardo naturalaren dastatze, mantenu eta kontsumoaren profesionalizazioan lagunduz.

Dastatze garaia amaitu zenean, Gaztelubide eta Euskal-Bilera elkarte gastronomikoetan ospakizunek jarraitu zuten: sagardotegietako ordezkariari, jubilatuei, omenduei eta ordezkari politiko eta sozialei bazkaria eman zitzaion.

